

Garzonen operazioa

Garzonek bost milioi pezetako bermea ezarri dio Gorostidiri

Gorostidik bere burua aurkeztu zuen Entzutegi Nazionalan

Eider Goenaga / Madril

Jokin Gorostidi Entzutegi Nazionalera joan zen atzo, Baltasar Garzon epailearen aurrean deklaratzera. Izan ere, Garzonen aginduz egindako azken polizia operazioan haren etxea miatu zuten, Deban, eta haren izena orduan atxilotu zituzten zortzi lagunen espetxeratzeko autoan irten zen. Epaileak talde armatuko kide izatea leporatu zion Gorostidiri, eta aske atera zen, bost milioi pezetako bermepean.

ORDUBETEZ egon zen deklaritzen Jokin Gorostidi 5. Instrukzio Epaitegian, Iñigo Iruin abokatuaren laguntzaz, bere burua Entzutegi Nazionalan aurkeztea erabaki ondoren. Garzon epaileak talde armatuko kide izatea leporatu zion, urtarrilaren 29an atxilotutako zortziei bezala, baina Gorostidik egotzitako kargu guztiak ukatu zituen.

Garzonek, zehazki, Deportatu Batzordean lan egitea leporatu zion. Gorostidik adierazi zionez, bost hilabetez baino ez zuen lan egin Deportatu Batzordean, eta osasun arazoengatik utzi behar izan zuen lan hura, Cabo Verdera egindako azken bidaiari legionella hartu baitzuen eta bi hilabetez koman egon baitzen, hiltorian. Orduz geroztik ez duela ia jarduerarik izan esan zuen.

Bestalde, epaileari adierazi zion Deportatu Batzordean lan egitea ez dela delitua, deportatuak bisitatu egiten zituela. Xakiri dagokionez, gainera, Gorostidik gogorazi zion bera Deportatu Batzordean egon zenean, 1991 eta 1992 bitartean, Xaki ez zela existitzen.

Garzonen ustez, ETak Haritza izeneko bati igorritako gutun batzuk erakutsi zituzkion Gorostidiri, eta Haritza bera zela esan zuen. Gorostidik hori ez zela bera esan zuen, eta gutun horiek ez zituela inondik ezagutzen.

Bestetik, berri agentzien arabera, Garzonek Elena Beloki bilatze eta atxilotzeko nazioarteko agindua eman du.



Jokin Gorostidi, HBko Mahai Nazionalako kide ohia, artxiboko irudi batean.

ANDER GILLENIA

Osakidetza telefonoak aldatu egin ditugu zurekiko arreta gero eta hobea izan dadin.



Orain, **Osakidetza** teknologiarik onena bereganatu du helburu bakar batekin: eguneroko arreta-zerbitzua hobetzea. Eta hori, Euskal Herriko Telekomunikazio Operadore Globala den Euskaltel-en bidez egin du. Beraz, eskura dauzkazu zure osasun-zentroko sare pribatuak eskainitako komunikazio-abaintaila guztiak: deia bizkorrago abiarazteko aukera, zerbitzu desberdinetara deitzeko zuzeneko telefono-kopuru handiagoa... Egiazta itzazu zure telefono-zenbakiak. Zure dei guztiei erantzungo diegu. Arreta hobea eskaini nahi dizugulako.

INFORMAZIOKO TELEFONOA 900 840 065

BIZKAIA

	Aurretiko Txanda	Bezeroako Arreta Zerbitzua	Osatek
Areilza Doc.aren Anbulatorioa	946006800		946006830
Santurtziko Anbulatorioa	946007610		
Portugaleteko Osasun Zentroa	946007515		
San Bizentiko Osasun Zentroa	946007940		
Sestao-Kuetoko Osasun Zentroa	946007880		
Durangoko Anbulatorioa	946032860		
Basauri-Arizko Anbulatorioa	946007345		
Durangoko Osasun Zentroa	946032880		
Basauri-Kareagako Osasun Zentroa	946007474		
Zuhatzuko Osasun Zentroa	946007700		
Bizkaiko Emaileen Elkarte		944007141	

GIPUZKOA

Ondarretako Osasun Zentroa	943006600	
Lasarte-Oriako Osasun Zentroa		943007960
Beasaingo Osasun Zentroa	943027700	
Tolosako Osasun Zentroa	943006800	
Eibarko Anbulatorioa	943032500	

ARABA

Amurrioko Osasun Zentroa	945025900
Laudioko Anbulatorio-Osasun Zentroa	946007480
Olagibelko Anbulatorioa	945007900

